

# ETXALDE YAURI

*Dokumentala*

Pello Seron Esnal

Tutorea: Elixabete Larrinaga Artetxe

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

GIZARTE  
ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN  
FAKULTATEA

FACULTAD  
DE CIENCIAS SOCIALES  
Y DE LA COMUNICACIÓN

*“Gu sortu ginen enbor beretik  
sortuko dira besteak,*

*burruka hortan iraungo duten  
zuhaitz ardaxka gazteak”*



# Aurkibidea

Logline	3
Sinopsia	3
Dokumentalaren esteka	4
Fitxa teknikoa	5
Datu teknikoak	6
Lokalizazioak	7
Elkarrizketatuak	9
Memoria	10
Musika	15
Erreferentziak	16
Lan egutegia	19
Hedapen plana	20
Bibliografia	21
Harremanetarako datuak	22





## Logline

Juanan, 68 urteko baserritar erretiratu Yauri etxaldean bizi izan da beti. Berarekin Beñat, 34 urteko gazte bat hasi da lanean, baserriarekin eta hizkuntzarekin jarraitzeko asmoarekin.

## Sinopsia

Baserriak desagertzen ari dira, eta haiekin batera, hizkuntza. Azken hamarkadetan, Getxok eraikitze handia pairatu du, baserri asko abandonatuta edo kanpoaldean utzita.

Yauri abereak dituen azken etxaldeetako bat da. Bertan Juanan bizi da, 68 urteko baserritar erretiratu. Berarekin lanean hasi da 34 urteko gazte bat, Beñat, tradizioa XXI. mendearekin lotuz. Transmisio katea jarraituz, inguruko eskoletako haurrak baserrira joaten hasi dira bizimodu hau ezagutzera.

**IKUSI DOKUMENTALA** >



# Fitxa Teknikoa

Zuzendaria eta Gidoia

Pello Serón Esnal

Kamera eta zuzeneko soinua

Pello Serón Esnal

Elkarrizketak

Unai Zaballa Clares

Edizioa

Pello Serón Esnal eta

Unai Zaballa Clares






# Datu Teknikoak

21 min. / Euskal Herria / Kolorea / Euskara / Dokumentala / HD 1080 25p, 1.85:1

# Lokalizazioak I




Yauri Etxaldea



# Lokalizazioak II



Getxoko kaleak



## JUAN ANTONIO ZABALA

Juanan beti bizi izan da Yauri etxaldean. 1995ean bota zuten arren, berria eraiki eta han egon da lanean duela hiru urte erretiratu zen arte. Hala ere, ahal duen guztian laguntzen jarraitzen du.

Beñat etxaldean sartu zenean berari utzi zizkion abereak eta lekukoa pasatu zion.



## BEÑAT BILBAO AYO

Beñat duela hiru urte Yaurin lanean hasi zen kaletarra da, Getxoko Hezetasuna auzokoa. Etxaldean Juananen lekukoa hartzeaz gainera, ohiturak eta hizkuntza ere bereganatzen ari da.

Baserrian ezartzen ari den aldaketen artean, ikastolako umeen etortzea sustatu du.



# Memoria

## Ikerkuntza eta ideiaren jatorria

Istorioarekin kasualitatez egin nuela topo esan daiteke, bat-batean iristen diren hauetarikoa. Horregatik istorio honekiko daukadan interesa, "magikoa" dela esan nezake.

Dokumentalaren hasierako ideia Getxoko dialektoari buruz egitea zen, akademikoagoa, ikerkuntza linguistiko handiagokoa. Izan ere, errealizazioan nire laguntzailea izan den Unai Zaballa-Clares hizkuntzalariak 2014an egindako ikerkuntza (*The Basque dialect of Getxo 2014: the witnessing of the death of a dialect*) erabili nuen abiapuntutzat. Interesgarria -eta tristea- da euskalki bat hilzorian dagoela ikustea, eta hori erregistratzeko ikus-entzunezko dokumentu bat sortzea ideia polita iruditu zitzaidan.

Lehenengo urratsa Getxoko euskara non kokatzen den jakitea zen. Euskal dialektoen sailkapen berriena Koldo Zuazok egin zuen (1998), non bost euskalki bereizten zituen. Bizkaiera eta Gipuzkera izenak Mendebalekora eta Erdialdekora aldatu zituen, bi probintzien mugak ez baitatoz bat muga dialektalekin. Getxoko dialektoa kokatzeko beharrezkoa da mendebaldeko euskalkiari begiratzea. Dialekto honen barnean, Zuazok (2003) bi azpidialekto bereizten ditu: Sartaldekoa eta Sortaldekoa. Sartaldekoan sartzen da Getxo, Uribe Kostako aldaeraren barruan, hain zuzen ere. Txorierrin eta Mungialdean baita sartaldera hitz egiten da, bakoitzak bere ezberdintasunak dituelarik, Koldo Zuazok eta Urtzi Goitik *Uribe Kosta, Txorierra eta Mungialdeko euskara* (2014) liburuan adierazten duten moduan.

Ikerkuntzarekin jarraituz *Getxo Akordaten Naz* dokumentalak aurkitu nituen, Getxoko adinekoen oroitzapenak batzen dituen bi dokumental, 2007 eta 2010ean egindakoak. Dokumental horien gidoilarietako bat Fredi Paia bertsolari getxotarra zen, eta, kasualitatez, bere arreba klasean egon da aurten. Berari galdetzea erabaki nuen, ea zer edo zertan lagun ziezadakeen, eta Yauri izeneko etxalde batean getxoztarrez hitz egiten duen baserritar bat dagoela esan zidan, eta bere lekukoa hartzen ari den gazte bat.

# Memoria

## Metodologia

Dokumentalaren ideia oraindik getxoztarraren inguruan egitea bazen ere, Unaik eta biok baserria bisitatzea erabaki genuen, gazteak, baserriko bizimodua hartzeaz gain, euskalkia ikasten egon zitekeelako. Geure burua aurkeztu eta oso ondo hartu gintuzten. Hala ere, kamerarekin agertu baino lehen, hainbat egunetan etxaldera hurbiltzen egon ginen, Juananek, bereziki, gugan konfidantza har zezan.

Bosgarren egunean lehenengo elkarrizketa egin genien, biei batera, gidoirik gabe. Oraindik ez zeuden guztiz irekita, eta horrek Juananek esaten zuena oztopatu zezakeen, bere benetako euskalkia ezkutatzuz edo moldatuz, Lavoben behatzailearen paradoxaren (observer's paradox) eraginez: hizlarien berezko hizkera lortzeko, benetan axola zaizkien gaiei buruz elkarrizketa bat prestatu beharra dago elkarrizketatuek behatuak izaten ari direla ahaz dezaten (Lavob in Zaballa-Clares, 2014). Hala ere, hain interesgarria iruditu zitzaigun Juananek eta Beñatek kontatzeko zuten istorioa, dokumentalaren nondik norakoak aldatzea erabaki nuela. Oraingoan bai, gidoia eta egitura prestatu eta ideiak argitu nituen.

Hurrengo grabaketa egunean, Juanan bere zereginetan lagundu genuen eta bere etxera sartu ginen lehendabizikoz. Beñati bakarrik egin genion elkarrizketa, nahiko arina izan zena. Hirugarren elkarrizketa egunean, Juanan guztiz solte zegoen eta oso ondo joan zen. Horietaz aparte, beste hirutan joan gara errekurtsuak grabatzera.


Bestalde, egun batean Koldo Zuazorekin Sondikan geratu ginen eta elkarrizketaren audioa grabatu genuen. Dokumental honetarako erabilgarria izango ez zaidan arren -berak alde teorikoagoa eman baitzigun-, laguntzeko oso prest egon zen eta hurrengo baterako bere laguntza eskaini zigun. Fredi Paiari ere hainbat galdera egin nizkion, telefonoz. Bi testigantza hauek hurrengo proiektuan erabilgarriak izango zaizkigu (ikus: Hedapen-Plana atala).

# Memoria

## Metodologia

Hurrengo urratsa grabatutako zazpi orduak ikustea eta sailkatzea izan zen, gidoia finduz. Istorioa kontatuta bazegoen ere, istorio nola kontatzeko prozesua luzea izan zen. Edizio lanetan hasi bezain laster, konpondu beharreko gauzak agertzen hasi ziren, eta dokumentala borobiltzeko ezinbestekoak ziren beste batzuk ere: errekurtsio planoak, giro-soinuak... Etxaldera egindako bidaiak asko izan ziren.

Forma hartzearekin batera, izenburua eta hedapen plana garatzeko bestelako ideiak ere agertzen joan ziren.



# Memoria

## Lanaren interesa

Lanaren interesa, pertsonalki, oso handia izan da, Globalizazioak eta kontsumo-gizarteak aldaketa sakonak eragin ditu gure bizimoduan azken hamarkadetan. Berdetik urrundu eta grisa besarkatu dugu, eta lurra ahaztu. Oraintsu hasi gara ohartzen gure baserrien eta landa-inguruneen garrantziaz, eta *landa eremuetara itzultzeko* ideia eta kontzeptuak pizten hasi gara. Juanan eta Beñaten istorioa itzulera horren erretratu bizia eta garbia da, ebakitako hari horren bersaretzea. Eta hau "lehen munduko" kezka nagusienetakoa izaten ari da, are gehiago, gure lur zati honetan.

Hiriaren hedapen grinak Juananen etxaldea irentsi zuen, eta zibilizazioak saltzen dituen balizko erraztasunengatik, gurasoek bizimodu hori uzteko esan zioten. Baina berak ezetz erantzun eta ohiturei lotuta jarraitu zuen, lurrari sustraituta. Irmo. Sinbologia honek, sustraitzearena, zuhaitz baten moduan sendo irautearena, ardatz dugu dokumentalean.

Niretzako oso garrantzitsua zen, Getxoko euskararen testigantzak batzea ez ezik, aurretik aipatutako arazoak mahaigaineratzea ere. Hurbiltzeko helburuarekin, dokumental laburra eta kontsumitzeko erraza izan behar zuen, eta batez ere gazteek ikusteko erakargarria. Hori izan zen 1.85:1 (18:9) formatua aukeratzeko arrazoi nagusia, mugikorretan ahalik eta hoberen ikusteko. Katebegia izan nahi nuen transmisio horretan eta etxaldetik hirira mundu hori gerturatzea, *asau dagoena parajetu*, hau da, urrun dagoena gerturatu.

# Memoria

## Egitura eta ezaugarri narratiboak

Dokumentalaren egiturari dagokionez, hiru zati bereiz daitezke: Juananena, Beñatena, eta umeena. Lehenengoak planteamendu, bigarrenak garapen eta hirugarrenak bukaera gisa jokatzear gainera, horrela banatzea erabaki nuen *iragana*, *orainaldia* eta *etorkizuna* irudikatzeko: ohitura, hizkuntza eta kultura oraindik mugimenduan baitaude. Hori da dokumentalaren ardatza: transmisio-katea, eta nola erretiratutako baserritar batetik eskolan dauden umeetaraino iris daitekeen. Egitura horregatik da borobila; hasten den moduan bukatzen da, bizitzaren zikloa bezala. Ideia hau indartzeko hainbat ezaugarri narratibo erabili ditut.

Lehenengoa, bidaiarena: kotxean kamera hiritik baserrira kotxe iristen da, istoriotik edan, eta behin prozesua beteta, ikasitakoa hartu eta hirira eramaten du, umeek ikasitakoa beraien motxilan sartzen dutenaren metafora.

Planoen erabilpenarekin ere hori indartzea zen helburua. Juananen planoak orokorrean geldoagoak dira, estatikoagoak, mugimendu gutxikoak. Beñatekin, ordea, kamerak dinamismoa hartzen du. Kaletar bat baserritar baten ibilbidea jarraitzen eta hizkuntza hartzen ari da, eta bera lehendabiziz agertzen denean, kamerak berdina egiten du: mugimenduak nabariagoak dira, Beñat atzetik jarraitzen hasten da. Umeen partean jada kamera ez da gelditzen, kulturaren transmisioa bizirik dago.

Horietaz gain, madariondoaren istorioa daukagu. Etxaldea bota zuten autobia bat gainean jartzeko, errepidea moldatu, pasealekuak egin, baina madariondoak han jarraitzen du, 120 urte inguru geroago. Juananek ez du madariondoa ahaztu, ezta alde batera utzi, zuhaitza familiaren sinboloa, etxaldearena eta ohiturena baita. Berak, horregatik, etxalde berriko zuhaitz bati injertoa egin zion, madari horiek gora mugituz eta berarekin eramanez. Pasa den urtetik zuhaitzak madariak ematen ditu, eta amaieran ume baten eskua madari bat hartzen agertzen da, aldaketa horren fruitua batzen.

# Musika

Mikel, Laboa (1980). *Izarren Hautsa - Lau Bost*

*“Gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira besteak, burruka hortan iraungo duten zuhaitz ardaxka gazteak”.*

Oso ezaguna den abesti honek asko indartzen du dokumentalaren ideia nagusia, oraindik mugimenduan dagoen transmisio katearena, baina bereziki madariondoaren metaforarena: duela hamarkadak zubipean landatutako madariondoak Yauri berrian fruituak eman eta enbor beretik sortutako madariak belaunaldi berriak jaso ditu.






# Erreferentziak

## Reig, Nacho (2010). *Amerikanuak*

Lan hau sortzeko inspirazioak anitzak izan dira. Estiloari dagokionez, erreferentzia nagusia Nacho Reig-en *Amerikanuak* (2010) dokumentala da. Dokumental honek Nevadako Elko herrian bizi diren hainbat euskal etorkinen istorioa kontatzen du, orokorrean abeltzaintzan lan egiten hasi zirenak.

Dokumentalaren plano luzeak, estatikoak, motelak hartu nituen erreferentziazat. Baina bereziki nire dokumentalaren amaieran erabilitako baliabidea izan da eredurik argiena: talde-argazkia egitea kamerara begira dabiltzala.



# Erreferentziak

## Malick, Terrence (2011). *The Tree of Life*

Argazkilaritzari dagokionez Terrance Malick-en *The Tree of Life* (2011) filma izan dut inspirazio iturri, berezki Emmanuel Lubezkiren argazki zuzendaritza lana dela eta.

Izan ere, madariondoaren metaforarako, argi-izpiekin jolasten duten planoak, plano kontrapikatuak, geldoak, lehen plano edo xehaztasun planoen erabilera asko izan ditut kontuan.

Gainera, dokumentalaren gaiak ere, badu antzekotasunik filmakoarekin, eta izenburuak ezin hobeto deskribatzen du: bizitzaren zuhaitza.



# Beste Erreferentziak

Koldo Almandozen filma eta Aitor Gisapolaren bi dokumentalak ere izan ditut erreferentetzat, bereziki aurkezten dituzten gaiak direla eta.

Formalki ez nuke esango erreferentziatzat izan ditudanik, baina gidoiaren egitura lantzeko erabilgarriak izan zaizkit, Gisapolaren dokumentalak bereziki.

**Almandoz, Koldo (2011)**  
*Oreina*



**Gisasola, Aitor (2007/2010) Getxo Akordaten Naz**





# ETXALDE YAURI

PELLO SERON ESNALen  
*dokumental bat*

## Hedapen Plana

Epe motzerako plana, Hiruka egunkariarekin (Uribe Kostako egunkaria) eta Getxoko kultura zinegotziarekin hitz egitea da, ea Getxoko guneren batean (kultur aretoan, edo Muxikebarrin -udal antzokia-, adibidez) proiektatzea posiblea den galdetzeko. Momentuz, Bentan, sortu berri den kultur-gune batean, proiektatzeko aukera izango dut.

Bestalde ZINEBIn edo Zinema Ikusezinean aurkeztea da nire ideia. Dokumentala ZINEBIn aukeratua izatekotan (uztailaren 25ean bukatzen da aurkezteko epea), dokumentalaren lehenengo proiektzioa jaialdian bertan izan beharko luke, beraz, Getxon ezingo nuke azarora arte erakutsi.

Epe luzera, Getxoko Udalean aurkezpen edo *pitch* bat egin nahiko nuke, diru-laguntzak lortzeko asmoz. Memorian azaldu bezala, dokumental hau murriztea erabaki nuen, baina honek nire estiloa edo ideia zein den aurkezteko balio dit. Diru-laguntzak lortzekotan, hasierako ideiarekin jarraitzea gustatuko litzaidake, dokumental akademikoagoarekin. Getxoztarrez hitz egiten duten (hogei bat lagun) azken hitzak eta testigantzak batu eta dialektoaren azken aztarnak gorde, galdu baino lehen. Elkarrizketatu ahal ditudan pertsonen kontaktuak ditut, baita teorilari eta hizkuntzalariak (Koldo Zuazo, Iñaki Gaminde, Xabier Bilbao) eta getxoztarrez hitz egiten dutenenak ere (Lola, Mari, Nekane, etab.).

# Bibliografia

- Aspuru, J. (Ekoizlea) eta Gisasola, A. (Zuzendaria) (2007 eta 2010). Getxo Akordaten Naz I eta II [Dokumentalak]. Euskal Herria: UK aldizkaria.
- Fernández Pascal, M. (Ekoizlea) eta Almandoz, K. (Zuzendaria) (2007 eta 2010). Oreina [Filma]. Euskal Herria: Txintxua Films.
- Zaballa-Clares, U. (2014). The Basque dialect of Getxo 2014: the witnessing of the death of a dialect. Euskal Herria: Deustuko Unibertsitatea.
- Zuazo, K. (1998). Euskalkiak, gaur. *Fontes Linguae Vasconum: Studia et documenta*, 78, 191-234.
- Zuazo, K. (2003). Euskalkiak. Herriaren Lekukoak. Donostia: Elkarlanean.
- Zuazo, K., Goiti, U. (2016). Uribe Kosta, Txorierrri eta Mungialdeko euskara. Euskal Herria: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Pitt, B. (Ekoizlea) eta Malick, T. (Zuzendaria) (2011). The Tree of Life [Filma]. AEB: Miramax.
- Bilbao, G. (Ekoizlea) eta Reig, N. (Zuzendaria) (2010). Amerikanuak [Dokumentala]. AEB: Miramax.

# Harremanetarako

Pello Serón Esnal

Telefono zenbakia: 688 645 758

Email-a: pelloseron@gmail.com

ETXALDE  
YAURI

